

Elgoibar - 1275. zenb.  
XXI. urtea - 2023-02-17



TOKIKOM

BARREN

# Elgoibarrek batu ditu

Veñera Urbaeva eta Mariasun Uribe



# GREEN MIO N GIDA



**ELEKTRIZITATEA**

**egoluz**  
ELEKTRIZITATEA S.L.

**Andres: 630 957 345**  
**677 512 462**

Pedro Migel Urruzuno, 14 behea  
20870 ELGOIBAR

Bulegoa: **943 200 697**  
ego.luz@hotmail.com

**ITURGINTZA**

**SANTANA**

Igor Santana

ITURGINTZA ETA INSTALAZIOAK S.L.

Urazandi Kalea, 17, behea  
Elgoibar

**943 740 530 / 605 714 905**  
santanaiturgintza@gmail.com

**AROZTEGIA**

**iraolagoitia**

aroztegia - altzariak - eke-aldaketak

Kurutuz-gain Industrialdea, 9  
20850 Mendaro

**943 756 112**  
**636 497 485**

www.iraolagoitia.com

**LEIHOAK**

**LODOSO  
LEIHOAK**

SIGMA INDUSTRIALDEA, 223  
lodosofj@gmail.com

**943 743 490**

**ITURGINTZA**

**PAGOAGA S.A.**

BULEGOA ETA ERAKUSKETA

Pedro Migel Urruzuno, 8  
**943 740 512**  
Fax: 943 743 565  
tienda@pagoagasasa.com  
www.pagoagasasa.com

**BILTEGIA**  
San Antolin, 13 - ELGOIBAR  
taller@pagoagasasa.com  
**943 740 279**

**AROZTEGIA**

**IMAR  
AROZTEGIA**

Olaso industrialdea, 17 behea

**943 531 471**  
**609 054 978**

carpinterialmar@hotmail.com

f

**PINTURA**

**BIOK  
dekorazioa**

Uparitzaga, 14 - Elgoibar

**943 741 552**  
**606 431 120**

biok@biokdekorazioa.com



**AROZTEGIA**

**BIENA S.L.**  
AROZTEGIA

Ermuaranbide, 12-14-16  
tel/fax. 943 743 116  
www.biena.eus  
info@biena.eus

f

**Gidan agertzearen onurak!**

**23,10€** leuan

**12** aldiz urtean

**4.885** ale astero

22 Eren truke, hileru, zure enpresaren datuak eta irudia erakutsiko ditugu **BARREN** astekarian.

**BARREN** astekaria da Elgoibar eta Mendaron erakusleiho ikusia.

4.885 ale banatzen ditugu Elgoibarren eta Mendaron **DOAN**.

Eman bultzada euskarari eta lagundu gure proiektua finantzatzen.

**943 743 704**  
**688 769 657**

barren.publi@elgoibarkoizarra.eus

Aita Agire Kulturunea, 3. 3. ezk  
20870 ELGOIBAR

Argitaratzailea:



Leire Kerexeta Berasaluze

Ikaslea

## Mozorrorik gabe



***"Baina zer egin dezakegu gure bizitzako ardatz nagusi bihurtu diren sare sozial agintzaile horien aurka?"***

Babeslea: Laguntzaileak:



Gipuzkoako Foru Aldundia

Azken bi urteetan ez bezala, inauteriak ospatuko ditugu asteburuan. Kaleak kolorez eta dibertsioz beteko dira eta jendearen poza nabarmenduko da. Badaude mozorroa izugarri prestatzen dutenak, baina egun koloretsu hauek hainbeste gustatzen ez zaizkienak ere, baina era batean edo bestean, guztiok murgiltzen gara jai honetan.

Kontu honen inguruan hausnarketa egin dut. Jendeak egun hauek benetan gustatuko litzaioken pertsona izateko erabiltzen dituela, gainontzekoek berari buruz esango dutena albo batera utziz, inongo konplexu eta beldurrik gabe.

Gure gizartean beti existitu ohi dira estereotipo batzuk, norbere janzteko era, pentsatzeko era eta norbere eginkizunak kritikatu edo txalotzen dituzten horietakoak, eta sare sozialak handiagotu egin dute honako bide hau.

Badira bizpahiru aste sare sozialetan mozorrotzeko ideiekin erlazionatutako hainbat bideo agertzen ari zaizkidalda eta honek guztiak erreflexio berdineran eraman nau. Eduki digital guzti horiek nolakoak izan behar garen esaten edo antzematen digute, hamaika filtro edo efektu espezialen bitartez. Gazteak dira mundu digital estereotipatuko biktima nagusiak, beraiek batira kontsumitzaile nagusiak. Nerabeen barnean hainbat beldur eta konplexu sortzen dira eduki horiei esker, norberaren gorputzarekiko ziurgabetasuna bultzatuz bizitzako etapa ahulenetako batean. Baina zer egin dezakegu gure bizitzako ardatz nagusi bihurtu diren sare sozial agintzaile horien aurka?

Zaila iruditzen zait guzti honi erantzun zentzudun eta irmo bat ematea, gero eta gehiago baitira zer izan behar garen edo nolakoak izan behar garen esaten diguten eduki digitalak. Horregatik gonbidatzen zaituztet aurtengo inauteriak hasiera gisa hartzera bakoitza den bezalakoa izateko, gainontzekoek diotenari kasurik egin gabe.

Aita Agirre Kulturgunea, 3, 3. ezk.  
20870 ELGOIBAR

☎ 943 744 112 - 📞 688 655 658

Publizitatea: ☎ 943 743 704 - 📞 688 769 657

[barren@elgoibarkoizarra.eus](mailto:barren@elgoibarkoizarra.eus)

[barren.publi@elgoibarkoizarra.eus](mailto:barren.publi@elgoibarkoizarra.eus)

[www.barren.eus](http://www.barren.eus)

BARRENEK bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarkiak lekuz aldatzeko eskubidea. Barrenek ez du bere gain hartzen Iritzia, Hitz eta klik eta gutunak ataletan adierazitako en erantzukizunik. **Koordinatzailea:** Ainhoa Andonegi. **Kazetariak:** Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Ainara Argoitia. **Hizkuntza arduraduna:** Ainara Argoitia. **Publizitatea:** Leire Rubio. **Maketatzailea:** Zaloa Arnaiz. **Atari digitaleko arlo teknikoaren arduraduna:** Aitor Lauzirika. **Administraria:** Amaia Arrizabalaga. **Kolaboratzaileak:** Manu Sanchez, Iosu Juaristi, Iñigo Lamelas, Edurne Izagirre, Paula Heras, Ane Astiazaran, Izaro Etxegibel, Jose Ramon Cabrera, Alex Segade, Ane Kortaberria, Asier Guisasaola, Maialen Sanchez, Leire Kerexeta. **Inprimategia:** Gertu Koop.E. **Tirada:** 4.885 ale. **Lege gordailua:** SS-1.038/92 ISSN 1138-1855.



[facebook.com/barrenaldizkaria](https://facebook.com/barrenaldizkaria)



[twitter.com/barreneus](https://twitter.com/barreneus)



[instagram.com/barrenaldizkaria](https://instagram.com/barrenaldizkaria)



[youtube.com/@Elgoibarrennet](https://youtube.com/@Elgoibarrennet)

## 4 GUTUNAK

*BARREnek ez du bere gain hartzen Iritzia eta Eskutitzak ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dute. Ez ahaztu izen-abizenak, NANA eta telefonoa jartzea. Bidali helbide honetara: barren@elgoibarkoizarra.eus*

-----

### **Badatoz inauteriak!**

Datozen egunetan, Inauteriak ospatuko dira Euskal Herriko ia herri guztietan, Elgoibarren eta Mendaron ere. Izango da oraindik norbait mozorroa azken ordurako utzi eta oraindik prestatu ez duenik. BARREnek eta gainerako hedabiedek egunero ematen dituzte horretarako hamaika ideia; mozorroa transgresio gisa, salaketa gisa edo egunerokoaren gogortasunari umorez begiratzeko tresna gisa erabili dezakegu.

Niretzat garrantzitsua da egunerokoari umorez begiratzea. Uste dut egunero gertatzen diren arazoek, ia guztiek, konponbiderako aukera badutela. Agian, konponbidea jarri nahi ez duten horietaz mozorrotzea litzateke onena! Traje ilunez jantzitako politikariz, enpresariz, boteredunez ,...beteko liriateke kaleak, ordea; aurpegi ilunez eta ezertan urratsik atzera egiteko asmorik ez duen jendez. Hau horrela balitz, oso tristeak izango liriateke inauteriak, bizipozikgabeak. Beraz, jantzi itzazue etxean dituzuen kolorez beteriko soinekoak, galtzak, alkandorak, pelukak, trapu zaharrak... eta gozatu alaitasunez inauteri jaiak, ondo pasatzea merezi dugu eta!

**A.A.**

### **Erraustegi modernoak, azken puntakoa, kutsatzen ez duena,... bla, bla, bla...**

Zubietako (Donostia) erraustegiak "modu egokian" funtzionatzen duela eta ingurumen baimen guztiak betetzen dituela adierazi du aste honetan Arantxa Tapia Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen, Iraunkortasun eta Ingurumeneko sailburuak Eusko Legebiltzarrean. Elkarrekin Podemos-IUK eskatuta egin du agerraldia Ingurumen batzordean.

Bada 2022ko udan hauxe gertatu zen: erraustegiaren aldamenean dagoen Arkaitzerreka kutsatua agertu zen, kolore marroiz eta aparrez beteta. Eta larriena: bertako arrain eta angila ugari hilda agertu ziren. Bertako herritarrek zein Usurbilgo Udalak uraren azterketak egin zituzten

eta kutsatuta zegoela frogatu zuten. Tapiak, ordea, adierazi zuen eurek ere analitikak egin zituztela Arkaitzerrekan, erraustegitik 500 bat metro beherago, eta han kutsadura antzeman zutela, baina "eragin gutxi" zuela bertako landare eta animalientzat. Harrapazank!

Erraustegi modernoak, azken puntakoa, kutsatzen ez duena... bla bla bla... izango zela zenbat aldiz entzun genuen? Gipuzkoarron kontura milioika diru gastatzen ari dira emaitza penagarriak lortzeko. Ura kutsatu dute eta erraustegiko tximiniatik ateratzen den kea zer uste duzue, garbia dela?

Ez dakit zergatik ez duten saritzen Zubietako erraustegia, Donostiako Fantasiatzko eta Beldurrezko Zinemaldian. Sari guztiak irabaziko lituzke!

**A.I.Z.**



Zuen kekek, galderak edo txaloak bidaltzeko: [barren@elgoibarkoizarra.eus](mailto:barren@elgoibarkoizarra.eus)



943 744 112




688 655 658



### **Santa Ana kaleko babes ofizialeko etxeen atzeko aldean dagoen igogailuarentzako estruktura traban**

**dago:** "Santa Ana kaleko babes ofizialeko etxeak egin zituztenean igogailu batentzako estruktura egin zuten atzeko aldean, egunen batean goiko kalearekin lotzeko zubia eraikitzeko. Atzeko kalean egin dituzte etxeak, baina momentuz badirudi ez dagoela zubia eraikitzeko asmorik. Estruktura horrek traba egiten du, eta gainera arriskutsua da. Kristalezkoa da, eta gazteak harrika ibiltzen dira, kristalak apurtzen. Ezbeharren bat gertatu aurretik estruktura hori bota egin behar dela iruditzen zaigu".



### **Aparkalekuen tamaina errespetatu egin behar da:**

"Arregitorre aurreko aparkaleku honetatik zabor edukiontziak kendu zituzten, oinezkoei ikuspegia murrizten zitelako. Hala ere, ibilgailu handiek hor aparkatzen dute, aparkatzeko eremutik kanpo askotan, eta zebra bidean gurutzatzeko zain dauden oinezkoei traba egiten die. Ez dut eskatzen aparkaleku hori kentzea edo furgoneta horren jabeari isuna jartzea, baina nolabait ohartarazi egin behar zaio hor aparkatzeak eragiten duen arriskuaz. Gure kezka jakinarazi dugu Udaltzaingoan, eta eskertuko genuke arazoa konpontzeko neurriren bat hartzea".



### **Txakurjabeek ez daukate herritarrekiko errespeturik:**

"Ikastola ondoko parkean ibiltzen gara eguraldi ona egiten duenean. Umeentzako leku aproposa da, eta gustura ibiltzen dira han jolasten. Belarra moztu berri dute, eta aste honetan eguzkia irten denez, han geratu gara. Baina egun batean argazkian ikusten duzuen pastela zegoen parkearen erdi-erdian. Txakurjabeek ez daukate gainerako herritarrekiko errespeturik. Umeen jolas parkea da, eta hantxe laga zuen norbaitek txakurraren kaka. Ez dago eskubiderik".



## Debabarrena Berritzen aurkeztu dute, laneratzeko eta gizarteratzeko eskualdeko proiektua



**E**goera zaugarrian dauden 30 urtez azpiko gazteei laneratzea errazteko sortu dute Debabarrena Berritzen proiektua eta astlehenean aurkeztu zuten, Soraluzen, sei erakundetako ordezkariak, tartean Eusko Jaurlaritzakoek. Soraluzen bertan abiaraziko dute proiektua, hamabi gazterekin. Hamabi gazte horiek formazioa eta orientazioa jasoko dituzte eta ikasitakoa Soraluzeko Olaldeako garajeetan jarriko dute martxan, lokal haiek egokitzen.

Ondoren, Ezozibidea Berritzen proiektuko obretan ere lan egingo dute, aldizkatze kontratuekin.

Hamabi laguneko taldea osatuta dago eta hasita daude lanean. Debabarreneko Gizarteratze eta Laneratzeko Saretik bideratu dituzte programara eta hamabi hilabetez arituko dira bertan lanean. Soraluzen, Ezozibideko etxebizitzaren obretan parte hartuko duten moduan, aurrerago Elgoibarko Sigma auzoan eta Eibarko Barrenan egingo diren beste lan batzuetan ere arituko dira.

### TEK Azitain, Gipuzkoako industria-enpresen lehenengo energia-komunitatea aurkeztu dute, Eibarren

Gipuzkoako industria-enpresen lehen energia-komunitatea sortu dute Eibarren, Azitaingo industrialdean: TEK Azitain Tokiko Energia Komunitatea. 347 plaka fotovoltaiko instalatuko dituzte Azitaingo industrialdeko zortzi enpresatan (Acha Herramientas, Codesyntax, Hanna Instruments, Inkubagailua Eibargunea, Jose Maria Irazabal, Manufacturas Resort, Neurtek eta Kirolbet) energia emateko. Proiektuan parte hartzen duten zortzi enpresek izaera juridiko propioa duen energia-komunitatea osatu dute proiektua martxan jartzeko.

Debegesa eskualdeko Garapen Agentziak eta enpresek sustatu dute TEK Azitain, Energiaren Euskal Erakundearen, Foru Aldundiko Ingurumen Sailaren eta Eibarko Udalaren laguntzarekin. 1.086 metro koadroko azalerarekin, instalazioak 156 kW sortuko ditu, eta urteko faktura elektrikoan asko aurrezteko ahalbidetuko die horrek. Izan ere, eguzki-plakak sortzen duten energia enpresa bazkideen



guztizko kontsumoaren %25 da gutxi gorabehera. Fakturatik deskontatuko zaie zuzenean eta ez dute ordainduko ez bidesaririk ez kargurik. Proiektu honekin Azitaingo enpresen energia autonomia handitu nahi dute eta bertan dauden enpresen energia-lehiakortasuna handitu. Horretarako, industrialdean bertan biltegitratze-sistema bat eta instalazio fotovoltaiko gehiago jartzea aztertzen ari dira, interesa duten enpresak komunitatean sar daitezten. Izan ere, komunitate honek enpresa eta/edo instalazio gehiago har ditzake bi kilometroko erradioan.

## Zaporeak erronka solidarioa egingo dute Debabarrenean

**E**ibarko eta Ermuko sukaldari batzuek sortu zuten Zaporeak ekimena Greziako errefuxiatuei jaten emateko. Azken edizioetan Elgoibarren ere egin dute janari bilketa, eta aurten Debabarreneko herri guztiek hartuko dute parte. Iaz garbantzuz pedrosillanoa biltzea egokitu zitzaion Elgoibarri, eta bi mila kilotik gora batu zen. Aurtengoa bosgarren edizioa izango da, eta martxoaren 20tik 24ra egingo dute. Janaria bidaltzeko gastuei aurre egiteko, bestalde, errifak ipiniko dituzte salgai eta, oraingoan, afaria eta Eibarko Artisten Elkarteko kideek doan eman duten artelan bat eramango ditu irabazleak.

Bestalde, Zaporeak elkarteari laguntzeko bazkideak behar dira, eta asmo horrekin, kanpaina abiatu dute. Bakoitzak nahi edo ahal duen kopuruarekin lagundu dezakeela nabarmendu dute



antolatzaileek, eta ekarpen guztiak ongiatorriak izango direla esan dute. Bazkide egiteko bi aukera daude: banku transferentzia bitartez, aldizkako transferentzia egiteko agindua emanda (ES14 2095 5092 00 9115250322 edo ES71 3035 0103 88 1030035880) edo, bestela, [www.zaporeak.eus](http://www.zaporeak.eus) webgunearen bitartez.

### Beste 500 zuhaitz landatuko dituzte Baso Biziak taldekoek otsailaren 25ean

Elgoibarko Baso Biziak taldekoek hemen bertako zuhaitzak landatzeko beste deialdi bat egin dute otsailaren 25erako. Lurgai Fundazioarekin elkarlanean, 500 zuhaitz landatuko dituzte Muskirutzu inguruko lurretan. 09:00etan batuko dira Mintxetan, eta autoak beteta joango dira landaketa eremura. Boluntarioak behar dituzte, beraz, herritarrei eskatu diete laguntza. Baldintza klimatologikoetarako egokiak diren arropa eta oinetakoak eramateko gomendatu dute, eta erremintak eta eskularruak Lurgai Fundazioakoek eramango dituzte. Hamarretakoa ere antolatzaileek eramango dute, landaketaren ondoren jateko. Izena emateko mezua bidali behar da otsailaren 23rako izen-abizenak, adina eta herria zehaztuz [info@lurgai.org](mailto:info@lurgai.org) helbidera.

### Gaueko taxi zerbitzua jarriko du martxan Elgoibarko Udalak inauterietarako

Elgoibarko Udalak, abuztuko jaietan zein Gabon Zahar egunean egindako balorazio positiboaren ostean, gaueko taxi zerbitzua eskainiko du inauterietako zapatuan. Zerbitzua 01:00etatik 08:00etara eskainiko dute, doan, eta herri barruko ibilbideak soilik egin ahal izango dira. Zerbitzua Txariduna hotela dagoen biribilgunetik abiatuko da. Ezin izango da aurrez erreserbarik egin; ilaran egon beharko da zain eta jendea itxaroten ari den hurrenkera errespetatuko dute. "Festa lasai eta segurua" izatea bermatu nahi du Elgoibarko Udalak.

### Udal Hauteskundeak prestatzen hasteko bilera egingo du gaur Mendaroko EH Bilduk

Maiatzaren 28an izango dira Udal Hauteskundeak, eta horren harira, bilera antolatu du Mendaroko EH Bilduk, gaur arratsalderako. 18:30ean izango da Mendaroko udaletxeko pleno aretoan, eta ondorengo gaiak landuko dituzte: orain arte egindakoak, aurrera begira egin beharrekoak eta hauteskundeetarako hautagaien zerrenda.

## Txankakuak banatu ditu Gabonetako zozketako sariak

Saritutako zenbait txartelek agertu gabe jarraitzen zutela ohartarazi zuten Txankakua merkatarien elkarteko arduradunek otsail hasieran. Azken dei horrek eduki du eragina, baina, eta sari bakar bat gelditu da eman gabe azkenean. Eguberrietatik otsailaren 9ra bitarteko epea izan dute irabazleek saritutako txartela aurkezteko. Astelehenean egin zuten sari banaketa ekitaldia eta Txankakuako dendetan gastatzeko erosketa-bonoak eskuratu zituzten saridunek. Iban Barrenetxeak eta Ainhoa Isasik jaso zituzten sari nagusiak, 500na euroko bonoa, eta beste zazpi lagun hauek 100na euroko bonoa jaso zuten: Nadia Nuñez, Ana Casquero, Juanjo



Carrara, Maitane Gallastegi, Miguel Panizo, Karmelo Lopez eta Esther Lopez.



### Kolorez argiztatu ahal izango dute Elgoibarko udaletxea aurrerantzean

Udaletxeko fatxadaren argiztapena berritu du Elgoibarko Udalak. LED teknologia duten zortzi argi ipini dituzte udaletxeko balkoian, argi-efektuak sortzeko. Udaletik jakitera eman dutenez, teknologia horri esker nazioarteko egunetan kolore batez edo bestez argiztatuko dute fatxada, Aita Agirre Kulturgunean egiten duten moduan. Adibidez, morez argiztatuko dute Emakumeen Egunean eta ortzadarraren koloreekin LGTBIQ+ Harrotasunaren Egunean.

### Petrila altxa ostean, euri-uren sarea aztertzen ari dira orain Garagartzan

URA Uraren Euskal Agentziak amaitu ditu Mendaroko Garagartza auzoan erreka bazterreko petrila altxatzeko hasitako lanak. 71,51 metroko luzean desmuntatu dute petrila hamabi metroko kuotara berdintzeko. Neurri hori bere hutsean ez da eraginkorrena, azkeneko uholdeetan errekek gainezka egiteagatik barik kalean bestela pilatu den euri-urak sortu dituelako kalteak. Horregatik, auzoko euri-uren sarearen funtzionamendua aztertzeko eskatu dio Udalak Bidein enpresari. Azterketaren emaitzak eskutan, Garagartzako gunerik baxuenean, ekaitz-tanga bat instalatzeko aukera aurreikusten dute teknikariek.



Auzotar talde batekin bileretan dabil Udala, eta haien eskariz, bi moto-monba ere erosi ditu. Haietako bat kaltetuenak diren bizilagunen eskura jarri du. Era berean, larrialdi protokoloa lantzen ere badabiltza Udala, kanpo enpresa bat eta beste erakunde batzuk.



## AMELIA ASENSIO

Gerrako umeen alaba

✍️ Ainara Argoitia

📍 Asier Orbea / Jose Asensioren bilduma

Elgoibar1936 taldeak antolatuta, 'Gerrako haurrak Sobietar Batasunean' izenburuko hitzaldia emango du gaur Amelia Asensiok musika eskolako auditoriumean, 19:00etatik aurrera. Aita, Jose Asensio Orueta, Tolosakoa zuen Ameliak, eta ama, Angeles Perez, Asturiaskoa, eta Sobietar Batasunera erbesteratu zituzten biak 1937an. Milaka ume bidali zituen atzerrira Jaurilaritzak garai hartan, baina Sobietar Batasunera iritsi ziren hurrek beste herrialde batzuetara iritsi zirenek baino esperientzia latzagoa izan zutela esan ohi da, Bigarren Mundu Gerrak bete-betean harrapatu zituelako eta haien erbesteratzea hogeitaz luza zelako. 1956an, Iosif Stalin hil ondoren eta Nikita Khrustxev agintari zela, hasi ziren Euskal Herrira itzultzen, Nazioarteko Gurutze Gorriaren artekaritzari esker. Jose Asensiok egindako eskaerak zabaldu zuen bidea, Rafael Moreno Izquierdo historialariak 'Los niños de Rusia' liburuan jasota daukanaren arabera.



*“Aita kritikatu zuten asko izan ziren gero aberriratzeko izena ematen lehenengoak”*

**Zuen aitak sustatu zuen Sobietar Batasunari gerrako haurrak aberriratzeko konpromisoa eskatzen zion lehen ekimena. Nor izan zen zuen aita?**

Tolosako familia ezkertiar batean jaio zen gizona zen gure aita, zazpi senidetan seigarrena eta 36ko altxamendu frankistaren biktima zuzena. Altxamendua izan zenean, gure aitaren anaia zaharrenek mendira jo zuten Euskadiren alde borrokatzera, eta gure aitak, ama eta Francisca arreba gazteenarekin batera, Portugaletarako bidea hartu zuen, ihesi, beste zientoka lagunuen antzera [Joseren aita gerra hasi aurretik hila zen]. Francoren tropak mendebalderantz egin ahala, baina, Bizkaia ere mehatxupean jarri zuten frankistek eta umeak ebakuatzeari ekin zion Jaurilaritzak. Seme zaharrenek ohartarazi

zioten gure amamari arriskuaz eta bi seme-alaba gazteenak kanpora bidaltzeko eskatu zioten.

**12 urte zituen aitak. Zer zioen erbestera irten ziren egunaz eta moduz?**

Esaten zuen Portugalete ingurura arrimatuak izango zirela frankistak ordurako, erbesteratzeko izena eman zutenetik oso azkar gertatu zelako dena eta bonba-hotsak entzuten zirelako. Kontatzen zuen kamioietan eta autobusetan iristen zirela familia asko Santurtziko portura, lur jota, eta agurtzeko astirik ere ez zutela izan askok. Arreba sekula bakarrik ez lagatzeko esan zion aitari gure amama zenak. Itsasoratzeko txartelean 12 urte zituela jarri arren, aitak 13 urte zituen amak *Habana* ontzira eraman zituenean, eta 6 izebak. 14 urtez azpikoak onartzen zituzten,

eta badaezpada, urtebete gazteagoa zela esateko agindu zion amak. Hala bizi izan zen erbestean, beti urtebete gutxiagorekin. Kontatzen zuen Santurtziko portuan ama guzti haiek negarrez ikustean ontzitik jaisten ere ahalegindu zela baina miliziano batek ez ziola laga. 1937ko ekainaren 13a zen [4.500 haur inguru irten ziren]. Pauillacera eraman zituen ontziak, eta han, banatu egin zituzten: Erresuma Batura, Belgikara... Pauillacera eraman zituzten haietako batzuk, tartean gureak, *Sontay* ontzi frantsera pasatu zituzten, Leningradora eramateko. Kontatzen zigun tripulazio osoa asiarra zela. Ekainaren 22an iritsi ziren Leningradora eta izugarritzko harrera egin zieten han. Ez zeukan ahazteko aitak. Babesa eman zieten, osasun azterketak egin zizkieten eta hezkuntza eta kultura jaso zuten, hangoaz gain hemengoa ere bai, hemendik joandako irakasleak ere bazirelako talde hartan. Leningradora iritsi ziren haurrak Odesa, Mosku eta Krimeara banatu zituzten, aterpetxe gisa egokitu zituzten lekuetara, baina zorionez aita ez zuten arrebarengandik banandu. Ondo hartu zituztela zioen, baina Tolosara itzultzearekin amets egiten zuela gauero.

### **Frankistek Bilbo hartu eta hiru egunera iritsi ziren Leningradora. Zuen amamak zer bide hartu zuen Santurtzin?**

Seme-alaba gazteenak *Habanara* igo ziren egun berean irten zen autobusez Kataluniara, Mercedes alabarekin (zazpi senideetan bosgarrena), eta handik Frantziara alde egin zuten. Gerra irabaziko zutela sinetsita bidali zituen Euskal Herritik amak, luze gabe ikusiko zituelakoan, baina ez zituen gehiago ikusi, erbestetik itzuli ginenerako hila zelako [1949an hil zen Maria Orueta eta 1956an itzuli ziren Jose eta familia].

### **Gerra bat galdu eta beste batek bete-betean harrapatu! 1939ko irailaren 1ean hasi zen ofizialki II. Mundu Gerra, Alemaniak Polonia inbaditu zuenean, eta bi urte geroago, Errusiaren kontra egin zuen Alemaniak, Poloniaren kontra aliatu izan zuenaren aurka.**

Holokausto bat izan zen hura. Abisatu gabeko eraso izan zen, bi herrialdeek hitzarmen bat sinatua zutelako elkarri ez erasotzeko. Lo harrapatu zituen Alemaniaren erasoak. Aitak kontatzen zuen Moskuko Dinamoren futbol zelaian zegoela bera, albistea eman zutenean.

Lehenengo urtebetean nahi zuten moduan egin zuten aurrera Alemaniaren tropek. Aitak esaten zigun ez zekiela zer sartu zien soldadu haiei Hitlerrek, ez zietelako inori ezer barkatzen. Herri osoak erre zituzten, eta milaka kulpabako herritar bortxatu, torturatu eta hil. Animaliek baino basatiago jokatu zutela entzun diegu beti gurasoei. Erbestera izan ziren umeetan nagusitxoena, tartean gure aita, irtenda zeuden ordurako gerrako umeentzako egokitu zituzten aterpetxeetatik, eta goian zerua baino ez zutela gelditu ziren. Txikiagoak, tartean izeba, batetik bestera erabili zituzten.

*"Gerra irabaziko zutela sinetsita bidali zituen Euskal Herritik amak, luze gabe ikusiko zituelakoan, baina ez zituen gehiago ikusi, erbestetik itzuli ginenerako hila zelako"*



*Angeles Perez eta Jose Asensio senar-emazteak.*

### **Adinez nagusi egin berri banatu zen arrebarengandik zuen aita. Nora jo zuen?**

Gerrako umea zela zioen agiri bat eman zioten, eta trenez ibili zen batetik bestera ihesi, nora jo ez zekiela. 'Ez dakit zerk lotzen ninduen bizitzari ere, baina beti izan nuen halako itxaropen-printz bat' esaten zigun orduko kalbarioa oroitzean. Moskun, balak egiten zituzten lantegi batean hasi zen lanean. Emakumezkoak ziren langile gehienak, gizonak gerrara deitu zituztelako. Gosete handia zegoen eta kontaktzen zigun gosearen gosez belaunek ere huts egin ziotela behin eta eskapada latza egin zuela, lanerako gai ez zena berehala desagertarazten zutelako. Emakume errusiar batek emandako patata batek salbatu zuen. Lantegian bertan zeuden barrakoietan egiten zuten lo, eta goizero jasotzen omen zuten hilotzen bat. Alemaniarrak ate joka zituztela alde egin zuen mendebalderantz, Uraletarantz. Eta aterpetxean irakasle izan zuen gizon batek proposatu zion Armadarako izena ematea. Gure aita ez ei zen 40 kilo eta egunean 400 bat gramo ogi izango zuela entzun zuenean, ez zuen zalantzarik egin. Bizi nahi hura ere harrigarri egiten zitzaion gerora. Urtebete inguru ibili zen Sobietar Batasunaren alde borrokan eta hemendik joandako hamar batekin topo egin ei zuen. Sekulako poza izan ei zen hori, nahiz senperrenak pasatu zituzten. Bik iraun zuten birizik, baina gure aitak berak ere gertu izan zuen azkena, trikinosi gaitzak ia eraman zuelako.

27.000 errusiar inguru hil ziren II. Mundu Gerran eta aitak sekula ez zien barkatu alemaniarrei egin zutena. Beti esan izan zigun Errusiako herriari zor geniola nazismoa hona zabaldu ez izana, Francok laguntzat bazituen ere, haiek kupidarik gabe etorriko zirelako honaino ere. Hori bai, errusiako agintariak ere ez zituen gustuko. Haiek ere ohe beroan lo egiten zutela esaten zigun eta Stalin Hitler bera bezain krudela zela.

### **Gerraostean ezagutu zuen emaztea, beste gerrako ume bat, eta harreman hartatik jaio zinen zu gerora.**

Aita eta izeba biak atera ziren bizirik gerratik. Gerraostean elkartu ziren, eta izebak berak aurkeztu zion gero gure ama izango zena. Zibiletik ezkondu ziren, Moskun. Ezkontzean etxe bat eman zieten, baina beste familia batekin partekatzeke. Aitak La Treintan lan egiten zuen. 25.000 bat langile ziren, tartean hemendik joandakoak ere bai. Gerra-hegazkinak egiten zituzten, baina espioitza despistatzeko, jostailuak ere ekoizten



*Francisca Asensio eta Angeles Perez zortzi hilabeteko alaba Amelia besoetan duela, aberriratuko zituen ontzira sartzen. Behean, Jose Asensio, itsasontzian.*

zituzten. Handik ekarritako zaldiko eder bat badaukagu oraindik Tolosan. Ekarrri genuenean Tolosako aberaskilloek erosi nahi izan ziguten.

### **Mundu Gerra amaituta Euskal Herrira itzultzeko itxaropena piztu zen gerrako ume haiengan, baina Stalinekin esana zuen haur haiek Errepublikatik hartu zituela eta Errepublikari itzuliko zizkiola, Franco hil ondoren. Ez zuten erraza izan aberriratzea, baina zuen aitak zabaldu zuen bidea, Nazioarteko Gurutze Gorriaren bidez. Nola izan zen hori?**

Tolosara itzuli nahi zuen eta pentsatu zuen idatziren bat adostu eta sina zezaketela gerrako umeek, aberriratzea eskatzeko. Zorotzat hartu

zuten askok, Francok agintzen zuelako hemen, eta bizkarra eman zioten, baina tematia zen aita eta idatzi zuen eskutitza eta eraman zuen Gurutze Gorrira, bere burua arriskuan jarrita. Tristea izan zen, kritikatu zuten asko izan zirelako gero izena ematen lehenengoak, aberriratzeko baimenak ematen hasi zirenean, eta berari, aldiz, dokumentazio osoa kendu ziotelako. Izan ere, itzultzeko ideia ez zitzaien gustatu Sobietar Batasuneko Gobernuari eta Moskuko PCEko agintariei hasieran. Moskun barrena ibiltzeko baimena bakarrik eman zioten. Sekulako beldurra pasatu zuen, Stalinen diktadurapean zeudelako eta beldur zelako KGBak hartu eta Siberiara kondenatzeko [SESBren barneko zein kanpoko kontraespioitza eta segurtasuna kontrolatzeko erakundea izan zen KGB 1954-1991 artean]. Euskal Herrirako bigarren ontzia irten zela eta berak artean baimenik jaso ez zuela ikusita, ikaratu egin zen eta emazteari esan zion lanetik etxeratzen ez zen lehenengo egunean bertan bilatzeko modua nirekin handik ihes egiteko, tarte horretan jaio nintzelako ni ere.

### **Nolakoa izan zen itzulerako bidaia?**

Itsasoratu ginen arte dar-dar batean egon zirela esaten zuten. Laurok bueltatu ginen: gurasoak, izeba eta neu. Castellon de la Planan lehorreratu ginen (Valentzia, Herrialde Katalanak). Azaroaren 23an beteko dira 67 urte itzuli ginela. Portuan, aitaren anaia bat geneukan zain, osaba Julian. Osabak eta izeba Mikaelak hiru seme-alaba izan zituzten eta laugarren bat hartu zuten adopzioan. Dena zor diegu, beren etxean hartu gintuztelako, erraztasun gehiegirik gabe bizi ziren arren eta guk deabru etiketa genekarren arren. Lehengusu-lehengusinak ere beste osaben etxera joaten ziren lotara, guri lekua uzteko etxean.

### **Gerra galdu zutenen ondorengoak zineten eta herrialde komunista batetik zentozten. Harrera ez zen onena izango, ala?**

Faxistek agintzen zuten hemen eta zailtasunak baino ez zizkiguten jarri itzulerakoan. Pauso guztiak zaintzen zizkiguten eta lanik ez zioten ematen aitari. Tolosako lantegi txiki batean hartu zuten, baina ezkutuan lan egitekotan. Izeba Francisca papertegi batean hasi zen lanean, itzultzaile moduan, baina hutsa jasotzeko. Osaba Julian eta izeba Mikaelagatik izan ez balitz, Sobietar Batasunera itzuli beharko genukeen guk.

*"Gure aita ez ei zen 40 kilo eta egunean 400 gramo ogi izango zituela entzun zuenean batu zen Sobietar Batasunaren alde borrokatzera"*

### **Noiz egin zenuten Tolosatik Elgoibarrera, eta zergatik?**

Kalean aitatu zion norbaitek aitari Elgoibarren bazegoela lana Sigman. Lehenengo aita etorri zen, eta apopilo egon zen beste bi langileren etxean. Mekanikan formazio handia jaso zuen gure aitak erbestean eta horri esker luzatu zioten kontratua hemen eta eman zioten bizitokia Sigmako etxeetan. Orduan ekarri gintuen gu hona, eta hemen jaio zen nire neba zena. Orduan hasi ziren arnasa pixkat hartzen gurasoak.

### **Nola hartu zintuzteten Elgoibarren?**

Batzuentzat deabrua zen gure aita, bere ezkertiar kondizio horregatik. 'El ruso' esaten zioten irain gisa eta auzoan bertan izan zituen zelatariak. Aitaren lantegi berean lan egiten zuen bizilagun batek goxoki bat ematen zidan egunero aitaren berri izan aldera, baina behin kontatu nion aitari eta bukatu ziren goxokiak! Aitak irratia entzuten ote zuen galdetzen zidan hark, sumatuko zuelako aitak debekatutako irratia entzuten zuela. Pirenaica, Espainiako alderdi komunistaren irratia, entzuten zuen, belarria irrati-aparailuari pega-pega eginda, beste inork entzun ez zezan. Polizia ere sarri etorri zitzaigun etxea miatzera eta tematzen ziren irratia martxan jartzen ere, baina gure aitak bonbilatxo bat nasaitzen zion atzean, funtziona ez zezan. Askotan deitu zuten deklaratzera aita, bai Guardia Zibilaren koartelera, bai eta Madrilerera ere. Xantaiak ere egin zizkieten, baina beti izan zen leial bere ideiekiko. Lo askorik ez zuten egingo gurasoek, ez. La Treinta enpresaren marrazkia egiteko eskatzen zioten behin eta berriz. CIAk informazio asko bildu zuen gerrako umeei hartutako deklarazioetatik. Elgoibarren jende batek beldurra ere bazion gure aitari, Francoren aldeko propaganda handia zelako eta deabruzat jartzen gintuztelako galtzaileak, zer esanik ez Errusiatik itzulitakoak.

## Bertsio gaua izango da Elgoibarko inauterietako berrikuntza

A txutxiamaika asialdi taldeak Bertsio Gaua antolatu du biharko, Elgoibarko Udalarekin elkarlanean. Maalako parkean izango da, 00:00etatik aurrera, eta taldeka zein bakarka parte hartzeko aukera egongo da. Talde irabazleak 250 euroko saria jasoko du, eta bigarrenak 170 euro. Bakarkako lehen saridunak 170 euro eskuratuko ditu, eta horrez gain, 150 euroko sari berezi bat ere egongo da. Interesatuak [www.elgoibarkoizarra.eus](http://www.elgoibarkoizarra.eus) webgunean edo 747 489 048 Whatsapp zenbakian eman beharko dute izena aurrez, eta bestela, ekitaldian bertan ere egongo da izena emateko aukera.

Atxutxikaraokea ere itzuliko da aurtengo inauterietan. Arratsaldean izango da, 2tik 12 urtera arteko umeentzat, Maalako parkean. Umeek euskarazko abestiak kantatu beharko dituzte. 17:30ean hasiko da, eta unean bertan eman beharko da izena.



Mendaron ere playback lehiaketa egingo dute 19:00etatik aurrera Arno Guraso Elkarteak Udalaren laguntzarekin antolatuta eta izena emateko [ekintzakarno@gmail.com](mailto:ekintzakarno@gmail.com) helbidera idatzi behar da. Inauterietako egitarau osoa agendan ikus dezakezue.

### Kantu Kolorek 'Eсна zaitez' ikuskizuna taularatuko du martitzenean



Kantu koloreko protagonistak abentura berri batean murgilduko dira inauterietako martitzenean. Gure planeta, gehien bat plastikoz kutsatzen ari da, eta horren inguruan ondu dute saioa, denon artean gurea den Lur planeta salbatzeko. Argiz eta dantzaz betetako ikuskizuna emango dute, familian gozatzeaz gain, jasangarritasunaren alde egingo duena. 17:00etan hasiko da ikuskizuna eta sarrerak [www.herrikoantzokia.eus](http://www.herrikoantzokia.eus) atarian erosi daitezke.

### Inauterietako kontzertu berezia emango du Sinuöseko gaur, sotoan

Inauterietako kontzertu berezia antolatu dute Sinuöseko kideek gaur gauerako. Duela 27 urte hasi zuten ibilbide hau Iban Urizarrek eta Patxi Zabaletak Malape tabernan, eta dagoeneko tradizio bilakatu da inauterietako emanaldia. Kultur Etxeko sotoan batuko dira gaur, 23:00etatik aurrera. Ez dute informazio askorik aurreratu nahi izan, baina beti bezala, esperimentazioaren ondorioa izango dela adierazi dute. Kartelean ageri dira gauekoaren arrastoak, eta gainerakoa emanaldian bertan deskubrituko dute.



## Goazen 9.0 ikuskizunaren bigarren saioa iragarri du Kultura Sailak martxoaren 17rako

**M**artxoaren 17an iritsiko da Goazen 9.0 ikuskizuna Elgoibarrera, eta ekitaldiak izan duen arrakasta ikusita, Kultura Sailak bigarren saio bat iragarri du egun bererako. 17:00etan izango da bigarren saio hori, eta sarrerak gaur jarriko dituzte salgai *herrikoantzokia.eus* webgunean, 12:00etatik aurrera.

Beste saioa 19:00etan izango da, baina dagoeneko sarrerak agortuta daude. Joan zen zapatuan jarri zituzten salgai, eta ordu erdian bete zen Herriko Antzokia. Hori ikusita hartu dute bigarren saio bat antolatzeko erabakia.



### Elgoibarko LH2ko ikasleek ipuin musikatuak entzun dituzte liburutegian



Elgoibar Ikastolako eta Herri Eskolako LH2ko ikasleentzako ipuin musikatu saioak antolatu ditu aste honetan Gotzon Garate Udal Liburutegiak. Joan zen astean Herri Eskolako ikasleak joan

ziren liburutegira, eta aste honetan Elgoibar Ikastolakoak. Ipuinak entzun eta dantza egiteko aukera izan zuten Anduriña Zurutuza ipuin kontalariarekin eta Txefo gitarra-jolearekin.

### Emakumeentzako biodantza tailerra antolatu dute Elgoibarren

Elgoibarko Udaleko Berdintasun Sailak Lila Emakumeen Etxeko programazioa aurkeztu du, eta beste hainbat ekitaldiren artean emakumeentzako biodantza ikastaroa emango dute. Otsailaren 20an hasiko da, eta eskolak hamabostean behin izango dira, astelehenetan, 18:00etatik 20:00etara, maiatzaren 8ra arte. Mentxu Arjonilla izango da irakaslea. Biodantza tailerra musika, mugimendua eta emozioa

uztartzeko dituen esperientzia da, pertsonen beren gorputzarekin, adimenarekin eta espirituarekin konektatzen laguntzen diena. Askotariko ariketa gidatuen bidez, parte-hartzaileek beren emozioak aztertuko dituzte, sentimenduak adieraziko dituzte eta besteekiko lotura hobetuko dute. Tailerra adin guztietako emakumei zuzenduta dago eta ez da aurretik dantza esperientziarik behar. Izena emateko: <https://labur.eus/lila2023>

## Nuala elkarteari buruzko abestia eta bideoklipa kaleratu ditu Bizipoza elkarteak

**B**izipoza elkarteak *Mundu Berri Bat Guztiontzat* 3 izeneko diskoa kaleratu berri du, eta elkarteko kide diren 11 elkarteren kantu eta bideoklipak jaso dituzte bertan, tartean Elgoibarko Nuala elkartearena. Euskal sortzaileek eta elkarteek elkarlanean sortutakoak dira kantak, eta Nualaren kasuan Azkoitiko Bulego musika taldeko Tomas Lizarazu abeslariak jarri dio ahotsa abestiari. *Laku bat* izeneko kantua sortu dute, eta uretan nahiz ur ertzean denontzako lekua dagoela aldarrikatu dute. Xabier Zabalak konposatu du abestiaren musika eta Oihana Aranarenak dira letrak. Zeinu-hizkuntzako zatia ere gaineratu diote bideoklipari. Euskal Herriko hamahiru idazle eta bertsolarik eta 22 abeslarik hartu dute parte. Guztien artean 12 abestiz eta 12 bideoklipaz osatutako CDa eta DVDa ondu dituzte. Horrez



gain, liburuxka ere argitaratu dute elkartearen ilustrazio banarekin, deskribapenarekin, ipuintxoarekin, abestiaren hitzekin eta sortzaileen eta elkarteetako kideen argazkiekin. Une honetan 36 elkarte osatzen dute Bizipoza elkarte, eta guztiak dira izaera bereziko gaiak lantzen dituzten elkarteak, hainbat eskubide bete gabe eta behar bereziak dituzten haur eta familiek osatutakoak. *Barren.eus* atarian ikus dezakezue Nualaren bideoklipa.

### Orri markagailuen lehiaketako irabazleek jaso dituzte sariak



Abeha Naveedek eta Alaitz Pascualek irabazi dute Gotzon Garate Udal Liburutegiak antolatutako orri markagailuen lehiaketa, eta dagoeneko jaso dituzte sariak. Joan zen astean egin zuten sari banaketa eta tablet bana jaso zuten Ane Beitia alkatearen eskutik. *Itsasoa zainduz, etorkizuna babestu* izan da aurtengo lehiaketako gaia eta parte-hartze handia eduki du lehiaketak. 730 lan aurkeztu dituzte guztira. Gemma Monreal eta Paula Herasek osatu dute epaimahaia.

### Bideo forum saioa antolatu du Haizeak gaur iluntzerako

Haizea emakume taldeak antolatuta, bideo forum saioa izango da gaur iluntzean, Lila emakumeen etxean. *Amor bajo el espino blanco* filma ikusi eta landuko dute. 2010eko film txinatarra da. Hiriko ikasle inozo bat da Jing, eta Iraultza Kulturalaren barruan

mendietan dagoen herri urrun batera joan behar du bere hezkuntzan sakontzera. Aita preso hartu dute eskuindarra izateagatik, eta ama hiru seme-alaba hezteko lanean ari da. Filma 18:30ean hasiko da, eta ondoren, mokadutxo egingo dute.

### “EUSKARALDIA egiten jarraitu behar dugu, baina berrikuntzak behar dituela uste dugu”

**B**i hilabete inguru pasatu dira EUSKARALDIA ariketa sozialaren hirugarren edizioa amaitu zenetik, eta ariketa horrek Elgoibarren eman duenaren balorazioaren laburpen bat egin dugu. Orrialde honetan, Elgoibarko EUSKARALDIA Taldeak egin duen balorazioaren laburpena jaso dugu. Aldameneko orrialdean, berriz, EUSKARALDIA ariketan izena eman zuten norbanakoei eta entitateei pasatako balorazio-inkestako galdera-erantzun batzuk dauzkagu.



#### Elgoibarko EUSKARALDIA Taldearen balorazioa .....

- EUSKARALDIA oso baleko ariketa da euskararen erabilera areagotu eta elgoibartarron hizkuntza-ohituretan eragiteko.
- 1.515 lagunek eman dute izena Elgoibarren hirugarren edizioan (1.499k, bigarrenean); 1.091 (% 72) lagunek *ahobizi* rola aukeratu dute, eta 424k (% 28) *belarriprest*. Izena eman dutenen artetik, 909 (% 60) emakumezkoak dira eta 603 (% 40) gizonezkoak.
- Entitateei dagokienez, 103 entitatek eman dute izena (104k bigarren edizioan); *ariguneak*, berriz, 366 *arigune* sortu dira (422, bigarren edizioan).
- Datuei erreparatzen badiegu, ikusten

da EUSKARALDIA ekimenak baduela atxikimendua elgoibartarron artean, baina jendearen ariketarekiko konpromisoak edota ardurak behera egin duelakoan gaude.

- Lehen edizioak oso erantzun ona izan zuen, jendeak ilusio handiarekin hartu zuen ariketa, baina badirudi ariketak indarra galdu duela, eta hasieratik hona jaitsi egin dela haren eraginkortasuna. Txapak, adibidez, azken edizio honetan oso gutxi ikusi diren sentsazioak daukagu.
- EUSKARALDIAK euskararen aldeko kanpaina kutsua hartzeko arriskua ikusten dugu, eta hori da ekidin nahi duguna.

#### Laugarren edizioari begira .....

- EUSKARALDIA antolatzen jarraitu behar dugu, baina laugarren edizioak berrikuntzak ekarri behar dituela uste dugu. Moldaketa batzuk egin behar dira, gure ustez.
- Ariketarekiko ilusioa berreskuratu behar dugu, batetik, eta, bestetik, EUSKARALDIA ariketaren garrantzia eta beharra jendarteratu behar dugu.
- Herritarrek modu konszientean eman behar dute izena; izena non eta zertarako ematen duten jakin behar dute, helburua

zein den argi izanda.


- Aurrerantzean, beharbada, izen-emate kopuruei ez diegu hainbeste garrantzi eman behar, eta alderdi kualitatiboa gehiago zaindu eta landu behar dugu, izena ematen dutenei ahalduz saioak eskainiz, adibidez.
- EUSKARALDIA egiteko garaia bera ere aztertu behar dugu. Orain arte neguan egin da, eta negua garai iluna da, kalean jende gutxiago egoten da, eta harreman sozialak asko gutxitzen dira.



**Norbanakoen balorazioa**

140 lagunek bete dute balorazio-inkesta

Bete al dituzu zeure buruari jarritako helburuak?



- Bai, gustura geratu naiz.
- Bai eta ez.
- Ez, apenas egin dudana ariketak eskatzen duena.

Euskaraldia ariketaren helburuetako bat da hizkuntza-ohituretan eragitea. Zure kasuan, aldatu al duzu hizkuntza-ohituraren bat?




- Bai, lortu dut hizkuntza-ohituraren bat edo beste aldatzea.
- Ez, ez da nire hizkuntza-ohiturarik aldatu.

Euskaraz egin al dizute euskaraz dakitenek?



- Bai, gehienek bai.
- Aurretik erdaraz egiten zidaten batzuek euskaraz egin didate 15 egunetan.
- Ez, lehendik egiten zidatenek bakarrik egin didate euskaraz.

Ezezagunei euskaraz egin diezu lehen hitza?




- Bai, beti edo ia beti.
- Batzuei bai baina beste batzuei ez.
- Oso kasu gutxitan.

**Entitateen balorazioa**

32 entitatek bete dute balorazio-inkesta

Zuenean sortu diren ariguneak, oro har, euskaraz lasai jarduteko gune edo taldeak izan al dira?



- Bai, gure ariguneek bete dute haien funtzioa.
- Bai eta ez. Kasu batzuetan bai, baina ez beti.

Euskaraldia ariketaren helburuetako bat da hizkuntza-ohituretan eragitea. Zuen kasuan, aldatu al da hizkuntza-ohituraren bat?



- Bai, lortu dugu hizkuntza-ohituraren bat edo beste aldatzea.
- Ez, Euskaraldiak ez gure entitateko hizkuntza-ohituretan eragin handirik izan.

# KIRGIZISTAN ETA ELGOIBAR AMERIKAR BATEN BIDEZ BATUTA

Harrera herria izan da historikoki Elgoibar. Industria herria izanik, lanera etorri zen jende asko hartu zuen industrializazioaren garaian, eta jatorri askotariko herritarren bilgune izan da gure herria. Gaur egun ere, iristen dira lan bila, baina turismoa eginez Euskal Herria ezagutu nahi duten atzerritarrak ere ikusten ditugu tarteka. Azkena Asia erdialdetik etorri da, Kirgizistandik, hain zuzen ere. Veñera Urbaeva da, eta Bianca Maritxu Neff Uribe euskal jatorriko amerikarraren bitartez iritsi da gurera. Istorio luzea da. Veñerak berak eta Biancaren ama Mariasun Uribe Beristainek azaldu digute.

✍️👤 Ainhoa Andonegi



**K**irgizistan Asia erdialdean dago, eta mugakide ditu Kazakhstan iparraldean, Uzbekistan hego-mendebaldean, Tajikistan hegoaldean eta Txina hego-ekialdean. 199.951 kilometro koadroko eremua hartzen du, eta 6,6 milioi biztanle zituen 2021ean. Hiriburua Biskek da, eta han bizi da Veñera Urbaeva (Biskek, 1983). Unibertsitateko irakaslea da, eta umeen eskubideetan espezializatua dago. Herrialde haietan ere umeen eskubideak sarri urratzen dira, eta haien alde egiten du lan Veñerak. Hizkuntzak ere gustuko ditu. Kirgizera da herrialdeko hizkuntza, baina errusiera ere hitz egiten dute, Kirgizistan Sobietar Batasuneko parte izan zelako. Horrez gain, gaztelania ere ikasi du bere kabuz. Irakasle kubatarra izan du, eta hiru urtez egon da eskolak jasotzen. Bere ametsa Espainiara bidaiatzea zen, eta lortu du.

Urriari hasi zen bere abentura. Norbere burua zaintzeari buruzko konferentzia bat antolatu zuten Biskeken, eta Veñera ikasle joan zen jardunaldi haietara. Dolu unea gainditzen ari zen Veñera, bera atzerrian ikasten ari zela ama auto istripuz hil zitzaioelako, eta jardunaldi haietan jarria zuen esperantza, kolpe hura gainditzeko. Hizlarietako bat Bianca Maritxu Neff Uribe zen, estatubatuarra, baina bere aurkezpenean Espainian bizi zela azaldu zuen, Malagan, hain zuzen ere. Ez zuen aukera hura pasatzen utzi Veñerak, eta hitzaldia bukatu ostean hizlariarengana gerturatu zen, gaztelaniaz berbetan. Bianca Maritxu harrিতuta geratu zen Kirgizistaneko emakume bat gaztelaniaz berbetan entzutean. Konturatu zen neska hark benetako pasioa zuela gaztelaniarekiko eta bere ametsa betetzen lagunduko ziola esan zion. Bianca 2001. urte inguruan Kirgizistanen bizitzen egon zen, pare bat urtez. Ikasketak amaitzen han jardun zen lanean, eta bazeukan hango jendearekiko begirune berezi bat. "Konexio moduko bat izan genuen ezagutu ginen une berean, oso lagunak egin gara". Une hartan bertan hasi zen Veñera Espainiara bidaiatzeko behar zuen dokumentazioa prestatzen.

**Urriari hasi zen Urbaevaren abentura,  
eta urtarrilean iritsi zen Espainiara.  
Malagara heldu zen, eta handik  
etorri da Euskal Herrira, Elgoibarrera.**

### **FAMILIA BIDAIARIA**

Bianca Maritxu Neff Uribe Malagan bizi da 2003. urtetik. Aita estatubatuarra dauka eta ama euskalduna, Mariasun Uribe Beristain (Arrasate, 1950). Mariasun Uriberen ama Elgoibarkoa zen, Maritxu Beristain, baina Mariasunek 4 urte zituela alde egin zuten Asturiasera lehenik, eta Galiziara ondoren. Mariasunek han ezagutu zuen Jon Neff estatubatuarra. Amerikako itsas armadarako egiten zuen lan Mariasunek, eta Jon AEBetako kostazainen itsas armadako komandantea zen. Mariasunek betidanik izan du hizkuntzak ikasteko zaletasuna, eta 15 urte zituela Ingalaterrara joan zen ingelesa ikastera. Harremana sendotu eta ezkontzea erabaki zutenean, ez zuten dudarik eduki: Elgoibarren ezkonduko ziren.

Mariasunen senideak Euskal Herrian zeuden, Elgoibarren amaren aldekoak eta aitaren partekoak Eskoriatza-Arrasate inguruan. Beraz, senide guztiak Galiziara eraman beharrean, beraiek hemen ezkontzea erabaki zuten. Maalako elizan ezkondu ziren 1972an, Arantzazun bazkaldu zuten, eta ondoren Estatu Batuetara joan ziren bizitzera. 31 urte egin dituzte han,



*Kirgizistan herrialdea, horiz.*

eta hiru seme-alaba dauzkate: Nerea, Erik, eta Bianca Maritxu. 50. urteurreneko urrezko ezteiak ere modu berean ospatu zituzten: Elgoibarren meza eta ondoren Arantzazuko Goiko Bentan bazkaldu zuten guztiek.

Hainbeste urtez Elgoibartik kanpo bizi izan arren, maitasun berezia diote herriari, hauxe dute familiaren bilgune. "Gure txokoa" izenez bataiatu dute familiarena izandako etxebizitza, eta hantxe biltzen dira izebarekin eta lehengusuekin. 100 urte baino gehiago ditu beraien familiakoa izan zen etxeak. San Frantzisko kaleko 51. zenbakian dute, bigarren solairuan. Bere aiton-amonak bizi ziren han, eta bere ama etxe hartan jaio zen. Mariasunek gogoan ditu umetan bisitan etortzen zeneko oroitzapenak. Izeba Garbiñe Beristain izan zen etxe horretan bizitzen azken senidea. Etxea ez zen inoiz familiarena izan, errentan zeukaten, eta jabeek etxea saltzea erabaki zutenean sekulako pena hartu zuten. Bizitzak, baina, etxe hura berreskuratzeko aukera eman die. Orain dela hiruzpalau urte etxea salgai zegoela jakin zuten lehengusina baten bitartez, eta Mariasunek eta senarrak erosi zuten. "Orain,

*"Paisaje aldetik menditsua da Kirgizistan ere, baina ez dauka kostalderik, eta hemengo kostaldea izugarri gustatu zait"*

Elgoibarrera etortzen garenean Gure Txokoa hartzen dugu ostatu". Familiaren historia biltzen du etxe horrek: Mariasunen aiton-amonak 11 seme-alaba izan zituzten. 36ko Gerra hasi zenean etxe hartatik irten behar izan zuten guztiek. Aitona hiru urtez egon zen preso, eta amona ume guztiekin ihesi joan zen. Egoera baretu eta itzultzea segurua zenean, etxe berera etorri ziren berriro.

Mariasun eta Jon Malagan bizi dira gaur egun. Gobernu kanpoko erakundeekin lanean aritu izan dira, eta erretiroa hartu zutenean Marokora etorri ziren proiektu batekin. Han zeudela, Mariasunen aitak iktusa izan zuen, eta aita zaindu ahal izateko, Espainiara lekualdatu ziren.



*Izeba Garbiñe Beristain (eskuinerengoa) eta haren lagunak gure gaurko protagonistekin.*

Beraien Gobernu Kanpoko erakundearen gune zentrala Malagan zegoenez, hara joatea erabaki zuten. Modu horretan, senarrak lanean jarraitzen zuen bitartean, Mariasunek aita zaintzeko aukera zeukan. Mariasunentzako bizitzak egin zion oparia izan zen Espainiara itzultzea. Gurasoak Galizian zituen, eta bera Estatu Batuetan egonik, haien zaintzak izugarri kezkatzen zuen. Neba bat dauka (beste neba bat hil zitzaion), baina berak bere arduraren sentitzen zuen gurasoen zaintza. Malagara iritsi zenean gertu sentitzen zituen gurasoak. Estatu Batuetako distantzietara ohituta, Malagatik Galizia bertan ikusten zuen. "Aita nahiko ondo sendatu zen iktus hartatik, baina urte batzuetara hil egin zen. Handik urte batzuetara hil zen ama bera ere, nire ondoan. Niretzako opari bat izan zen, ohore bat, gurasoak azkenera arte zaindu ahal izatea". Galizia eta Malaga artean eman zituen urteak, eta Gobernu Kanpoko Erakundeari esker Afrikako herrialde asko ere ezagutu zituzten. Gaur egun Malagan bizi dira eta beraien proiektu propioa daukaten martxan. Adin txikikoentzako harrera etxeetatik irteten diren gazteei laguntzeko zentro bat daukate. Tutore edo gurasorik gabe iristen diren adingabeak adin txikikoen zentroetan hartzen dituzte, baina 18 urte betetzean kanporatuak izaten dira. "Galduta egoten dira, 18 urte eduki arren, askok ez dute jakiten nora jo, eta bide horretan norabidea zehazten laguntzen diegu gure zentroan".

Bianca Maritxu alaba ere gurasoekin bizitzera etorri zen Malagara. "Maritxuk jada ez du esaten amerikarra denik, espainiarra dela dio, eta nire hiru seme-alaben artean bera da euskaldunena", esan du amak. "Bi belaunaldi pasatu dira, nire gurasoak euskaldunak ziren, baina ni Asturias eta Galizian hazi nintzen, eta nire seme-alabak Estatu Batuetan, baina odolean daramagu euskal izatea. Izugarri maite dugu Euskal Herria, eta bereziki, Elgoibar". Bianca Maritxuk unibertsitate amaierako proiektua ere euskal herritarrei buruzkoa egin zuen: "DNA n darama nire alabak Euskal Herria". Mariasuni sekulako poza ematen dio beraien seme-alabek Euskal Herriarekiko daukaten sentimenduak.



*Bianca Maritxu eta Nerea izeba Garbiñe Beristainekin.*

### **KIRGIZISTAN ETA ELGOIBAR, ELKARRENGANDIK URRUN, BAINA ANTZEKOTASUN HANDIEKIN**

Urtarrilean iritsi zen Veñera Malagara. Bisquetetik Istanbulera hartu zuen lehenengo hegaldia, eta handik zuzenean Malagara, Bianca Maritxuren etxera. Bianca Maritxuk Gobernu Kanpoko Erakunde bat dauka, eta gatazka eremuetan lan egitea gustatzen zaio. Malagan lursail bat erosi du eta yurtak eraiki ditu. Yurtak Mongoliako eta Kirgizistaneko etxebizitzak dira, kanpin denda handi batzuk modukoak. Horrelako etxebizitzekin erretirorako gunea sortu du Bianca Maritxuk, eta han hartu dute Veñera. "Etxean bezala sentitu naiz hasieratik, familiako bat gehiago sentitzen naiz". Malagara iritsi zenean, Euskal Herrirako bidaia prestatzen aurkitu zituen Bianca Maritxu eta

**Mariasun Uribe gaur egun Malagan bizi da eta adin txikikoentzako harrera etxeetatik irteten diren gazteei laguntzeko Gobernu Kanpoko Erakunde bat dauka.**

bere etxeokak. Euskal Herriko familia bisitatzea etortzekoak ziren Elgoibarrera, eta jakina, Veñera beraiekin etorri zen. "Izugarri gustatu zait Elgoibar. Bertako jendea oso jatorra da, oso irekiak zarete hemen eta oso gustura nago". Urrun egon arren, bere herrialdearekin antzekotasunak aurkitu ditu: paisaje aldetik menditsua da Kirgizistan ere, baina atentzioa eman dio familiak hemen ere daukan garrantziak: "Nik uste nuen Espainian liberalagoak zinetela, askeago bizi zinetela, baina konturatu naiz familiarekiko lotura handia dagoela hemen ere". Asko gustatu zaio belaunaldi desberdinen arteko harremana, eta poza ematen dio umeak aiton-amonekin ikustea. Era berean, aiton-amonak gurpildun aulkian kalean ikustea harritu egin du, bere herrialdean minusbaliatuak ezkutatu egiten direlako. "Poz handia eman dit naturaltasun osoz ikustea jendea gurpildun aulkian edo disfunzioa duen jendea kalean ikustea". Euskal kulturaren barneratzeko asmoz etorri da, eta Santa Ageda eskea ezagutzeko aukera izan du, besteak beste. Kostaldea ezagutu du, Kirgizistanek ez dauka kostalderik, eta izugarri gustatu zaizkio Zumaia eta Gaztelugatxe. Jateko dagoen ohiturarekin harritu egin da, baina aldi berean, gustatu egin zaio. "Ateratzen didaten guztia probatzen dut. Bizitzan lehenengo aldiz jan dut odolostea eta gustatu zait". Bera kristaua den arren, familian musulmanak dira, eta haiekiko errespetuagatik txerrikirik ez jaten saiatzen da egunerokoan, baina oraingoan salbuespena egin du. Ardoa ere gustatu zaio, merkea eta ona dela iruditzen zaio. Hizkuntzak gustuko ditu, eta euskararekiko jakinmina ere piztu zaio. Hitz batzuk ikasi ditu, eta aurrerantzean gehiago sakontzeko asmoa ere badauka. Euskararen errealitatea kirgizeraren antzekoa dela azaldu du, eta han ere kirgizera sustatzeko mugimenduak daudela kontatu du.

Giza eskubideen irakaslea da unibertsitatean, eta umeengan espezializatu dago. Eskolak online ematen ditu, eta horri esker bidaiatzeko aukera dauka. Hiru hilabeterako bisatua lortu du, eta beste astebetetz geratuko da Euskal Herrian. Gero Madril eta Bartzelona ezagutzeko asmoa dauka, eta Mallorkara ere joan nahi du. Espainiako Historia ere ikasi nahi du, hitz egiten diren hizkuntzen berri izan, eta motxila esperientziak betetzeko asmoa dauka, Kirgizistanera itzuli aurretik. Pozik dago, zoriontsu, bere ametsik garrantzitsuena egi bihurtu duelako. Eskerrak eman dizkie bihotzez Bianca Maritxuri eta Mariasuni, ametsa betetzeko aukera emateagatik.

**Euskal Herria eta euskal kulturaren barneratu da, Santa Ageda eskea ezagutu du, eta bizitzan lehenengo aldiz probatu du odolostea.**



*Goian Gure Txokoa izena jarri dioten etxearen aurrean, eta behean, santa eskean.*

## Egoitza handitu du Zubi Ondo xake taldeak



Zubi Ondo xake taldeak Juan Mugertza kalean duen egoitza berritu eta handitu du Elgoibarko Udalak. Lokala handitzearena aspaldiko eskaera zela azaldu dute Zubi Ondo xake taldekoek. Danborrada antolatzen duen Atabal elkarteak xakelarienaren alboan zuen lokala hustu dute, eta horrek eman die aukera euren handitzeko. Zubi Ondoko presidente Mikel Leonek azaldu duenez, Udalak Merkatu Plaza dagoen eraikinerako lekuak datu du Atabalekoek eurenaren ondoan zuten lokalean gordetzen zuten danborradarako materiala. "Bi lokalak banatzen zituen horma bota dute, eta gure lokalaren tamaina bikoiztu egin da orain", azaldu du. Handitze horri esker, Gipuzkoako eta Euskadiko

xake txapelketak antolatu ahal izango dituzte aurrerantzean. "Orain arte 24 xakelari bakarrik kabitzen ziren lokalean, eta 40 edo 50 xakelari hartzeko aukera dugu orain". Txapelketak egoitzan bertan antolatu ahal izatea abantaila handia dela arrazoitu du, honela: "Azken urteetan Olaizaga kirolegian, IMHn edota Kultur Etxean antolatu izan ditugu txapelketak, baina lan handia zen leku horietara mahaia, aulkiak eta tableroak eramaten eta ekartzen ibiltzea. Dena bertan, eskura, izango dugu orain". Leonek eskerrak eman dizkie Udalari eta bereziki kiroletako zinegotzi izan zen Gorka Garaizabali, "kargua laga aurretik itxita laga baitzuen gure lokala handitzearena", esan du.

## Espainiako dardo txapelketa jokatzeko sailkatu da Derry Darts taldea

Elgoibarko Derry Darts *Paquetes N1* taldeak Makina elektronikoen modalitateko Phoenix Darts Espainiako dardo txapelketan lehiatzeko txartela eskuratu du. Txapelketa honetan ohikoa den moduan, lehen fasean on-line lehiatu dira San Frantzisko kalean dagoen Derry tabernako makinatik. Maiatzaren 18tik 20ra jokatu dute Espainiako txapelketa Esteponan (Malaga, Espainia). Elgoibartarrek, baina, ez dute oraindik argi joan ahal izango diren.

Duela lau urte ere lortu zuten Espainiako txapelketarako sailkatzea eta Coruñan izan ziren orduko hartan. "Gastu handia da bost lagun Malagaraino joatea eta Phoenix Euskadik emango ligukeen 250 euroko laguntzaz gainera, ez dugu beste laguntzarik edo babesik. 2019an Galizian egon ginenean ere gure poltsikotik ordaindu behar izan genuen harako bidaia eta



egonaldia. Hortaz, azken erabakia hartu ez badugu ere, arrazoi ekonomikoak tarteko, uko egin beharko diogu parte hartzeari", azaldu du Roberto Sanchez taldekideak. Honakoek osatzen dute taldea: Gorka Panizo, Roberto Sanchez, Jurgi Casado, Gorka Redondo eta Antonio Vico.

## Mayi Mujikak hirugarren egin du mendiko eskiko kronoigoerako Euskal Herriko Txapelketan

**E**uskal Herrian jokatzeko den mendiko eskiko proba bakarra da Bandres Karolo memoria. Hiru urtean jokatu gabe egon eta gero, -pandemiagatik lehenengo eta ia elur nahikorik egin ez zuelako-, aurreko asteburuan jokatu zuten proba Izaban, Euskal Herriko mendi-eskiko bakarkako txapelak jokoan zirela. Azken urteetan Elgoibarko eta Mendaroko hainbat eskiatzailek parte hartu izan dute, eta oraingoan Mayi Mujika eta Ainhoa Lendinez izan ziren Elgoibartik joandakoak. Larunbatean lineako proba egin zuten eta domekan, kronoigoera. Mayi Mujika A ibilbidean lehiatu zen zapatuan, 20 kilometroko eta 2.000 metroko desnibel positiboko ibilbidean. Seigarren postuan sailkatu zen, 03:35:47ko denbora eginda. Nahia Quincoces izan zen azkarrena (02:37:43) emakumezkoetan. Lendinezek eskiatzaile herrikoiak batzen dituen B ibilbidean, 10 kilometrokoan, hartu zuen parte eta 3. postuan sailkatu zen, Ane Aspe eta Garazi Esturoren atzetik. Domekako kronoigoeran ere Nahia Quincoces izan zen azkarrena (44:36). Izabako plazatik bertatik abiatu, eta Ardibidepikua tontorrera igo ziren eskiatzaileak:



700 metroko desnibela gainditu behar izan zuten 5 kilometroko ibilbidean. Igone Camposek egin zuen bigarren (45:41), eta Mayi Mujikarentzat izan zen podiumeko hirugarren postua (53:50), proban laugarren sailkatu bazen ere. Montserrat Bacardit sailkatu zen hirugarren, baina ez zen Euskal Herriko txapelketarako lehiari sartzen. Ainhoa Lendinez zazpigarren postuan sailkatu zen, eta beteranoetan hirugarren azkarrena izan zen. Hortaz, Mujikak zein Lendinezek brontzezko domina eskuratu dute mendiko eskiko kronoigoerako Euskal Herriko Txapelketan, maila absolutuan lehenak eta beteranoetan bigarrenak.

### Gaintxipitxa gaineko bidez gozatu zuten domekan mendizale gaztetxoek



Mendirako egun dotorea eduki zuten aurreko domekan umeentzako eta familientzako mendi irteeran parte hartu zuten lagunek. Eguna hotz esnatu zen arren, eguzkia indarra hartzen joan ahala epeltzera egin zuen. Hogei ume eta beste horrenbeste nagusi elkartu ziren Elgoibarko tren geltokian, eta 9:20ko trenean joan ziren Mendarora. Garagartza auzotik abiatu eta Alkorta baserrirainoko bidea hartu zuten. Azaldu dutenez, penditz handiko bidea da eta

han joan zitzaizkien hasierako hotzak. "Behin goia hartuta, eguzkiak ederki epeldu gintuen. Baserri, zelai eta baso artean, lasai-lasai igo ginen Gaintxipitxa gainera. Tontorrean bista zoragarriez gozatu eta indarberritu ondoren, atzera Mendarora jaitsi ginen", azaldu dute Morkaiko mendi taldetik. Morkaikok Elgoibar Ikastolarekin eta Herri Eskolarekin batera antolatzen dituen mendi irteeretan hurrengo Urregaraira izango da, martxoaren 19an.



## Paula Calvo igerilariak urrezko hiru domina irabazi ditu Gipuzkoako txapelketan

Infantil, junior eta absolutu mailetan hamasei klubetako 200dik gora igerilarik parte hartu zuten Gipuzkoako Neguko Igeriketa Txapelketan, Bergarako Agorrosingo igerilekuan. Paula Calvo elgoibartarrak Eibar Igerixan taldea ordezkatzuz egin zuen igerian eta emaitza bikainak lortu zituen. Urrezko hiru domina irabazi zituen hiru lasterketetan: 100 metro librean, 100 metro bizkar eta 200 metro estiloak. 100 metroko tximeleta estiloko lasterketan hirugarren egin zuen. Horiez gainera, maila absolutuko 200 metroetako estiloetako lasterketan brontzeko domina irabazi zuen. Otsailaren 10etik 12ra arteko asteburuan, berriz, eskola-adineko selekzio autonomikoen Espainiako Igeriketa Txapelketa jokatu zuten Torreviejan (Alacant, Valentzia, Herrialde Katalanak). Infantil eta junior mailako 500dik gora igerilari aritu ziren lehian, eta Paula Calvo ere han izan zen, euskal selekzioa ordezkatzuz. Bizkar estiloko 100 eta 200



metrotako probetan hartu zuen parte igerilari elgoibartarrak eta 8. eta 10. postuetan sailkatu zen, hurrenez hurren. Infantil mailako nesken Euskadiko selekzioak sailkapen nagusiko 10. postua lortu zuen.

### Azkoitian eta Eibarren lehiatu dira igerilari gaztetxoak



Elgoibar Igeriketa Taldeko benjamin eta alebin mailetakoko igerilariek Eibarren eta Azkoitian izandako jardunaldi banatan hartu zuten parte joan den zapatuan. Eibarren lehiatu ziren alebinak, ligako laugarren jardunaldian eta lan txukuna egin zutela azaldu dute taldeko arduradunek. 400 metro estilo librean egin zuten igerian. Azkoitian, berriz, Benjamin Testa eta KZL-ko 3. jardunaldia

izan zen. Elgoibarko ordezkariak tximeleta estiloan 6x25 errelebo mixtoan lortu zuten emaitza bikaina azpimarratu dute. "Oraingoa ere, taldea indarberrituta eta gogotsu bueltatu da Azkoitiko zein Eibarko saioetatik, eta ari gara hurrengoak prestatzen", esan dute. Oñatiko eta Azpeitiko igerilekuetan izango dira hurrengo jardunaldiak, martxoaren 4an.

**LANA**

**Eskaerak**

Adinekoak edo umeak zaintzeko prest nago, eta baita etxeko garbiketa lanak egiteko ere. Esperientzia daukat.  
**685 724 861**

Adinekoak zaintzeko prest nago, orduka. Gauz ere bai.  
**605 402 030**

**ETXEBIZITZA**

Hiru logelako etxe bila ari gara, alokatzeko. **644 892 034**

Hiru logelako etxea alokatuko nuke. **642 039 066**

Alokatzeko etxe bila nabil. Hiru logelako etxea beharko nuke.  
**677 259 560**

Hiru logelako pisua hartuko nuke alokairuan Elgoibarren.  
**632 970 110**

Etxea daukat alokatzeko: Trenbide kalea, 17, 4. pisua. Bi logela, bi komun eta garaje itxia, igogailuarekin.  
*inaetxan@gmail.com*  
**600 364 040**

**GARAJEAK**

Marradun garajea alokatzen dut, Lekuederren.  
**699 143 767**




**BESTELAKOAK**

Scooter elektriko invacare Orion modeloa saltzen da. Pertsonalizatua, larruz egokitutako eserlekuarekin.  
**659 329 118**

Merkatu txikiko iragarkiak bi astez argitaratzen ditugu. Salmenta eta alokairu iragarkiak ordaindu egin behar dira.

Etxebizitzak, garajeak eta lokalak: 18€ (alokairua) - 22€ (salmenta).  
Autoak saltzea: 18€ .  
Bestelakoak: 10€.  
Iragarkiari erretratua jarriz gero, 6€ gehiago ordaindu behar dira.


BAZKIDEENTZAKO PREZIOAK:  
Etxebizitzak, garajeak eta lokalak: 15€ (alokairua) - 20€ (salmenta).  
Autoak saltzea: 15€.  
Bestelakoak: 8€.  
Iragarkiari erretratua jarriz gero, 5€ gehiago ordaindu behar dira.

 <p>Consejo Vasco de Colegios de Administradores de Empresas Euzko Eskola Administrazioaren Lanbide-Itzulpena</p>  <p><b>ROSA Mª PINTADO</b></p> <p><i>Etxaldean Administrazioarako-Gratu ikasketen arduraduna Alcalá de Henaresko Unibertsitatean, eta GIPuzkoa, Bizkaia eta Arabako, Errioxako eta Kantabriako ikastetxeetan. Zuzenbidean lizentziatua. Kolegiatu zenbakia: 749</i></p> <p><b>660 969 679</b> <b>rosapf@telefonica.net</b></p>	<p><b>Gure etxepeko bizilagun bati ura sartzen zaio leihoen egurrezko markotik. Arazoa ez da, baina, fatxadako ertzena, baizik eta egurrarena berarena, egoera txarrean dagoelako. Jakin nahi nuke nori dagokion konponketa hori ordaintzea, etxejabeari berari ala komunitate osoari.</b></p> <p>Ura egurrezko markotik sartzen bada, eta ez fatxadako ertzetatik, arazoa etxe jabearena da, berak ez duelako mantenu lan egokirik egin. Beraz, ez dagokio komunitateari hori konpondu eta ordaintzea. Aldiz, egurraren egoera txarra etxebizitzaren zahartzearen ondorio bada, komunitateari dagokio konpontzea, leihoak aldatu behar balira ere.</p> <p><b>GOMENDIOA: Etxejabe batek leihoak aldatu eta berriak jartzeagatik ordaindu badu, eta handik denbora batera ura sartzen hasten bada leiho horiek eta fatxada ez daudelako ondo lotuta, etxejabe horri berari dagokio konponketa ordaintzea. Hau da, etxejabeak bermatu behar du inpermeabilitatea, eta ez komunitateak, bera izan delako leihoak aldatu dituen.</b></p>  <p><b>AHOLKULARI KOLABORATZAILEA</b> San Bartolome, 2</p>
---	--

Argazkiak eguazten eguerdia (12:00ak) baino lehen ekarri behar dira Barreneko bulegora,  
barren@elgoibarkoizarra.eus e-postara edo **688 655 658** bidalita.




Zorionak, **Manex**, ostegunean 3 urte handi beteko dituzulako! Primeran ospatuko dugu. Muxu handi bat etxeke guztion partez!



**88 urte!** Zorionak! Urteak gora, baina zure bizipozak ez du behera egiten. Ondo pasatu domekan Aittola Zaharren eta laster bilduko gara Bilbon. Maite zaitugu. Etxekoak.



Zorionak, **Nikole**, bihar 9 urte handi beteko dituzulako! Etxekoan, eta bereziki, Enekoren partez. Ederki ospatuko dugu!



Zorionak, **Jakes**, mutil handi! 8 muxu potolo, etxekeon partez.

Erretratu bakarrek agurra: 4,50€.  
Argazki bikoitza: 7€. Hirukoitza: 9€.  
Hiru lagunetik gorako taldeak: 15€.

ELGOIBARKO IZARRAKO  
BAZKIDEENTZAKO PREZIOAK  
Erretratu bakarrek agurra: 3,50€.  
Argazki bikoitza: 6€ Hirukoitza: 8€.  
Hiru lagunetik gorako taldeak: 12€.

## BARRENeKo harpidedunentzako oharra

**Buzoiko B pegatina falta bazaizu edo hondatuta baduzu, BARRENeN bulegora etorri eta berria emango dizugu.**

**Banaketa sistema errazteko behar-beharrezkoa dugu zuen buzoiak pegatinarekin markatzea.**

**Mesedez, ez ezazue pegatina kendu buzoitik. Gure banatzaileek eskertuko dute.**



## EXPRESS ESKAINTZAK!

### SAMSUNG LED TELEBISTA UE43AU7025KXXC



**A G**

**329 €**

- 4K UHD
- Xacelerator turbo mugimendua
- Smart TV
- Q-SYMPHONY
- HDR 10+
- 3 HDMI
- PUR kolorea
- USB

# MILARBIRE

Ubitarte, 11 - 943 741 487 - [bire@milar.es](mailto:bire@milar.es)

Dendako prezioak. Produktuak agortu arte.

## 17 BARIKUA

**18:30** Bideo foruma: 'Amor bajo el espino blanco'. Haizeak antolatuta, Lilan.

**18:30** Mendaroko EHBilduk deituta, bilera irekia, udaletxeko pleno aretoan.

## 22 EGUAZTENA

**19:00** Epeletan literatur tailerra: Annie Ernauxen Gertakizuna. Maite Lopez Las Heras. Gotzon Garate Udal Liburutegian.

## 23 BARIKUA

**10:00** Minbiziaren aurkako elkartearen informazio mahaia. Kalebarren plazan.

### Inauteriak 2023 ELGOIBAR

#### 17 BARIKUA

**15:00** Ikastolako Euskal Inauteria. Ikastolako ikasleek kaleak alaituko dituzte, eta Kalegoen plazan amaituko dute dantzaldia.

**23:00** Sinuöseren inauterietako kontzertua. Kultur Etxeko sotoan.

#### 18 ZAPATUA

**12:15** Haritz Dantza Taldearen marrazki lehiaketako sari banaketa. Kalegoen plazan.

**12:30** Kale-erromeria, Inguma taldearekin. Haritz Dantza Taldeak antolatuta.

**17:30** Atxutxikaraokea. 2-12 urte bitarteko umeentzat. Maalako parkean.

**19:00** Mauxitxa txaranga, erraldoi buruhandi eta zezenzikletekin.

**10:00** Bertsio gaua. Abestiak play-back eran interpretatu behar dira, banaka zein taldean. Maalako parkean.

#### 21 MARTITZENA

**17:00** Ikuskizun musikala: 'Kantu kolore: Esna zaitez'. Herriko Antzokian.

**17:30** Dantzaldia eta mozorro lehiaketa. Jubilatuen Biltokian.

**18:15** Mauxitxa txarangaren kalejira, erraldoi, buruhandi eta zezenzikletekin. Maalako parketik.

### Inauteriak 2023 MENDARO

#### 18 ZAPATUA

**12:30** Bizipoza txarangaren kalejira.

**18:00** Txokolate-jana umeentzat. Frontoian.

**19:00** Playback. Frontoian.

**21:00** DJ. Frontoian.



#### Eta, Debabarrenean zer?

### 'METEO'

**Deba, otsailak 24,  
22:00, Kultur Elkartean**



Miren Narbaiza musikariak eta Itziar Garaluce artista bisualak sortutako ikuskizuna da *Meteo* eta Deban emango dute otsailaren 24an, barikua, Kultur Elkartean. Sarrerak salgai daude online: <https://linktr.ee/debakokulturelkartea>.

Zinea



'Tar'

17 barikua: 19:00  
 18 zapatua: 19:00 / 22:15  
 19 domeka: 19:00  
 20 astelehena: 21:00

**2023ko botika ordutegiak:** 09:00-13:00 / 16:00-20:00  
 GUARDIAK: Egunez: 09:00-22:00 Larunbatak: 09:00-14:00 (■)  
 OHARRA: 2023an ez da iluntzeko farmazia zerbitzurik egongo Elgoibarren.

**OTSAILA**

- 17 BARIKUA
- 18 ZAPATUA
- 19 DOMEKA
- 20 ASTELEHENA
- 21 MARTITZENA
- 22 EGUAZTENA
- 23 EGUENA
- 24 BARIKUA

**Egunez**

- Barrenetxea
- Ibañez / ■ Yudego
- Ibañez
- Garitaonandia
- Arriola
- Fernandez
- Yudego
- Oruesagasti

**2023 urte guztian, gauzez: 22:00-09:00**  
**Cristina Sanchez Castaño - Julian Etxeberria, 7 (Eibar)**  
**943 203 052**

<p>■ Fernandez:                  Herriko Enparantza,4                  Garagartza (Mendaro)                  943 756 142</p>	<p>■ Ibañez:                  Rekalde, 1 (Soraluze)                  943 751 638</p>	<p>■ Oruesagasti:                  Kalebarren, 9 (Soraluze)                  943 751 384</p>
--	--	--

Jarraitu gaitzazu BARRENEK Youtuben duen kanalean!



Santa eskari, ferriren taldearekin



Mendaroko eskolakoien santa eskari



SANTA eskari KASTOLA 2023



Bosko Eguna eta IMH Eguna (Elgoibar, 2023-01-27)



Pirritx, Ponoz eta Marinosotz paillozom 'Unak bete, abentak biz' Elgoibarren



Errege magaki Mendaro eta Elgoibarren



'Menditen ez; Karakate bitirik!' pankarta erakutsia Mendietan



Elgoibarko Bolamarlotzaren I. Azoka



Olerzero eta Mari Domingi (2022, Elgoibar)



Olerzeroei eta Mari Domingiaren kalejira (Mendaro, 2022)



Mautsotz irabazi du 2022 urteko 6azta Txapelketa Irabiatu



Irungo Txiki baserri erre de Elgoibarren



[www.youtube.com/user/Elgoibarrennet/videos](https://www.youtube.com/user/Elgoibarrennet/videos)






Aste honetako erretratu zaharra Amaia Mujikak ekarri du BARRENERA. 1935. urtekoa da, eta bere osaba-izeben ezkontza egunean aterata dago. Tomas Assin (†) eta Isabel Larreategi (†) ezkondu ziren, Parisen. Isabel Larreategi Elgoibarkoa zen, Amaia Mujikaren izeba. Oso gazte joan zen Parisera zerbitzari lanak egitera, eta han ezagutu zuen Tomas Assin. Parisen bizi izan ziren erretiroa hartu zuten arte, eta gero, Pauera gerturatu ziren. Amaiak gogoan du Elgoibartik joan izan zirela noizbait Parisera izeba bisitatzera, eta baita Pauera ere.



**LAGUNAK**  
colchonería textil hogar

**%25**eko beherapena  
edozein izara  
eta mantetan!



San Roke kalea, 20 - Elgoibar - 943 744 457 - 685 756 978 - [www.textillagunak.com](http://www.textillagunak.com)



V. URTEURRENA  
**Mikel Gorostiza Etxaniz**

2018ko otsailaren 22an hil zen, 94 urte zituela. Haren oroimenez V. urteurreneko meza izango da, eguaztenean, otsailaren 22an, 19:00etan, Elgoibarko Bartolome Deunaren eliz-parrokian. Joango zaretenoi, alde zurretik eskerrak.

**Zure maitasuna betirako gure bihotzetan.**



IX. URTEURRENA

**Amaia Arrizabalaga Arakistain**

2014ko otsailaren 18an hil zen, 44 urte zituela.

**Batzuetan falta zaigu  
indarririk eta kemenik,  
inork ez dio bizitza  
erraza izango denik.  
Zu joan zinen albotik  
ustekabean, aurrenik  
oinazea gainditzeko  
nahiz hartu dugun baimenik,**

**zutaz oroitu aldiro  
nola ez sentitu penik.  
Negar malkoez begiak  
sarri ditut estaltzen nik  
ta nahiz urteak pasatu  
ta honek ez duen etenik,  
ez da deus zure irudia  
lausotu dezakeenik.**

Etxekoak



IX. URTEURRENA


**Bittor Alberdi Elorza**

*"Patxillo"*

2014ko otsailaren 18an hil zen, 51 urte zituela.

**Urteak pasatu arren,  
egunero zure falta igartzen.  
Lehen, orain eta beti zaude,  
gure bihotzetan, egunak argitzen.  
Maite zaitugu.**

Etxekoak



# GU. ZU? ikastola

Jarri gurekin harremanetan  
Ikastola bertatik bertara ezagutzeko



elgoibar **ikastola**  
[www.elgoibarikastola.eus](http://www.elgoibarikastola.eus)  
[elgoibar@elgoibarikastola.eus](mailto:elgoibar@elgoibarikastola.eus)  
943744441



ikastolenkartea

